



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

2022/05/24an

**EGINDAKO OHIKO**

UDALBATZA.

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 24/05/2022.**

### **BERTARATUAK- ASISTENTES**

#### **Alkate-Udalburua**

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### **Zinegotziak**

Maite Uribe Beristain  
Purificación Regidor Varela  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Hernández  
Dorleta Sologaistoa  
Leire San Vicente Carrillo

#### **Idazkari akzidentalak**

MARIA PILAR BIAIN CORTABARRIA

Eskoriatzan, 2022ko maiatzaren 24an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Antonio Regaño Sájeras, Nestor Arana Arexolaleiba eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 24 de mayo de 2022, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Antonio Regaño Sájeras, Nestor Arana Arexolaleiba y Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACRDQ7.6mu3>

**2022/05/24**  
**Ohiko Udalbatza**  
PlenoPleno Ordinaria



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

### **1.- AURREKO BILEREN AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2022/03/22, 2022/03/31 eta 2022/05/11.

### **2.- ALKATETZAREN JAKINARAZPENAK.**

Maiatzaren 17ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Bestalde alkateak honako adierazpenak ere egin ditu:

- 1- Alkateak proposatu du ekaineko osoko bilkuraren data hiru taldeekin adostea. Berez, ekaineko ohiko bilkura ekainaren 28an tokatzen da, baina, jai bezpera izanik, alkateak ekainaren 20ko astean egitea proposatu du. Ekainaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan, jartzea erabaki da.
- 2- Alkateak adierazi du Agurtzane Orbegozo udal langilea jubilatzen dela. Bestalde, pandemia garaian beste langile bat ere jubilatu zela adierazi du, eta ez zitzaiola agurrik egin; hori dela eta, bi langile horien agurra lanean ari den langilearen azken lan egunerako antolatzen ari direla adierazi du, beraz, ekainaren 10ean, arratsaldeko 14:00etan, egingo den agurrera guztiek gonbidatuta daudela adierazi du.

### **3.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Hitza emanda, osoko bilkurara etorritako herritarren artetik bere burua Usue Bengoa bezala identifikatu duen pertsonak hartu du hitza. Bera eta berarekin etorritakoak Luis Ezeizaren guraso elkarteko ordezkari gisa etorri direla jakinarazi ondoren, bai eta apirilaren 8an Udal Erregistroan “Eskola gure etxea” proiektuari buruzko dokumentazioari sarrera eman ziotela ere Josuri helarazteko, galdu du ea proiektua gainerako talde politikoekin partekatu den, Hirigintza Batzordean aztertu den, eta, hala bada, zer erabaki den; eta, ez bada aztertu, noiz aztertuko den.

Josu Ezkurdiak honakoa erantzun dio: hala da, dokumentua jaso zen, sarrera eman izanarena ez dakit, baina, ekaineko batzordean jorratzeko asmoa dugu. Eskerrak eman nahi dizkizuegu osoko bilkuran agertu zaretelako, baina Luis Ezeizaren zuzendaritza-batzordearekin bilera bat egitea aurreikusita dugu gaia aztertzeo. Ekainean proiektu horren berri emango da, hirigintzako teknikariak aztertzen ari dira, ideia bat da, ez dago aurrekonturik, ez kosturik, ez eperik; eta ezer erabaki aurretik zentzuzkoa da ikustea zer kostu izan dezakeen.

Luis Ezeizako ordezkaria: bestalde, beste gai bat ere badugu, eskola-kontseiluaren bilera batean aipatu zena. Eskolako jolastokiaren eremua eta bolatokiaren eremua egokitzeko proiektu bat dagoela aipatu zen, eta laster aurkeztuko zela, irakasle, guraso, ikasle eta gainerako interesdunek horri buruzko iritzia eman zezaten. Zein fasetan dagoen jakin nahi genuke.

**2022/05/24  
Ohiko Udalbatza  
Pleno Pleno Ordinaria**



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Josu Ezkurdia: gaia aipatu denez, aurreratuko dut proiektu hori geotermiako energia alternatiboa garatzeko beste proiektu bati lotuta dagoela. Proiektu hori oraindik ez dago behar bezala aurreratuta, baina ikastetxeko eremu osoan obra garrantzitsua izango da. Proiektu hori garapen-fasean dago, eta gutxieneko prestakuntza duenean, entzunaldi-tramitea izango du.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

### **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarse conforme son aprobadas la actas de las sesiones celebradas en estas fechas: 2022/03/22, 2022/03/31 y 2022/05/11.

### **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el 17 de mayo.

Por otra parte, el alcalde también ha realizado las siguientes comunicaciones.

- 1- El Alcalde propone acordar con los tres grupos la fecha del pleno de junio. De hecho, la sesión ordinaria de junio toca el 28 de junio, pero siendo víspera de fiesta, el alcalde propone que se celebre la semana del 20 de junio. Se acuerda que será el día 21 de junio, a las 18:00 horas.
- 2- El Alcalde indica que la trabajadora municipal Agurtzane Orbegozo se jubila. Por otro lado, ha señalado que en época de pandemia se jubiló también otra trabajadora y que no se le hizo ninguna despedida, por lo que ha señalado que la despedida de estas dos trabajadoras se está organizando para el último día de trabajo de la trabajadora en activo, y que, por tanto, quedan todos invitados a la despedida que se celebrará el 10 de junio a las 14:00 horas.

### **3- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Concedida la palabra, interviene, de entre las personas asistentes en el público, quien se identifica como Usue Bengoa. Tras informar que tanto ella como el resto de asistente vienen en calidad de representantes de la asociación de padres de Luis Ezeiza, así como que con fecha 8 de abril dieron entrada en el Registro del Ayuntamiento a una documentación relativa al proyecto “eskola gure etxea” para que se hiciera llegar a Josu, pregunta si el mismo ha sido compartido con el resto de grupos políticos, si ha sido tratado en la Comisión de Urbanismo; y en caso afirmativo qué se ha acordado y en caso de que no haya sido tratado cuándo se espera se trate.

Josu Ezkurdia le responde: Efectivamente se recibió el documento, el tema de la entrada administrativa lo desconozco, pero tenemos previsto tratarlo en la comision del mes de junio. Se agradece vuestra comparecencia en el pleno, pero tenemos prevista una reunion con la junta directiva de Luis Ezeiza para tratar el tema, en junio se dara conocimiento de ese proyecto, los tecnicos de urbanismo estan analizandolo, se trata de una idea, no se dispone de presupuesto, ni costes, ni plazos; y antes de decidir nada es razonable ver que coste puede tener.

Representante de Luis Ezeiza: Por otra parte, tenemos otra cuestion que tratar y que se habia comentado en una reunion del consejo escolar . Se comentó que hay un proyecto para la adecuacion del area de patio escolar , de la zona de la bolera... y que en breve se

**2022/05/24  
Ohiko Udalbatza  
Pleno Pleno Ordinaria**



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

presentaría para que los profesores, padres, alumnos y demás interesados pudieran opinar sobre el mismo. Quisieramos saber en qué fase está.

Josu Ezkurdia: - Ya que se ha comentado el tema , adelantaré que dicho proyecto esta ligado a otro proyecto de desarrollo de energía alternativa de geotermia , proyecto que todavía no esta suficientemente avanzado pero que sí va a suponer una obra importante de toda la zona del colegio. Dicho proyecto está en fase de desarrollo y cuando esté mínimamente elaborado será objeto de trámite de audiencia.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:10 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

**2022/05/24  
Ohiko Udalbatza  
Pleno Pleno Ordinaria**